



Premio Micaela Portilla

Reunido el Jurado de la **X Edición del Premio Micaela Portilla Vitoria a la mejor tesis sobre estudios feministas o de género –2021–**, analizadas las cinco tesis presentadas a esta convocatoria pertenecientes a:

- Departamento de Sociología y Trabajo Social
- Departamento de Didáctica de la expresión musical, plástica y corporal
- Departamento de Historia del arte y de la música
- Departamento de Periodismo

Ha decidido otorgar **el Premio Micaela Portilla 2021** a la tesis

Transfeminismotik ekarriak haur hezkuntzara: Eskola identitateari buruzko kasu azterketak neoliberalismo garaian

Autora

Irati León Hernández

Directoras

Maria Teresa Bizkarra Morales

Rakel Gamito Gomez



RESUMEN

Jakina denez, egungo genero eta sexualitate politikek askotariko erak dituzte emakumeen eta gorputz ez hegemonikoek pairatzen duten zapalkuntzan esku hartzeko. Bien bitartean, gaur egun indarrean dagoen sistema neoliberalak lehiakortasun eta indarkeria sustatzen darrai, jendartean duen eragina nabaria izanik eta zenbait indarkeria sistematikoko betiketza ditu.

Horren aurrean, ezinbestekotzat jotzen da hezkuntza arlotik hausnarketa bat egitea, askatzaileagoa izango den hezkuntza sistemaren aldeko erronkan murgilduz, neoliberalismoaren antipodetan. Zentzu horretan ikerlan honen helburua nagusia haurtzaroa eta generoaren baitan, identitateari buruzko eztabaidetan zenbait argudio indartzea da. Horrela, azken urteetan indarra hartzen dagoen diskurtsotik kanpo, eztabaida berriak mahaigaineratzea nahi da; aktibismo transfeministatik datozenak.

Egoera deskribatzeko eta emari transfeminista hezkuntza-praktiketan txertatzeko, lan honek lau kasu-azterketa jasotzen ditu, lau ikerketa ezberdinetan. Lehen ikerketak eskolakori jartzen dio begirada; errealitatearen erradiografia bat egiteko. Bigarren ikerketak erradiografia hauen baitak osatzea bilatzea dut, eskolako erronka zehatzak jasoz. Hirugarren ikerketak, identitatearen garapena aztertzen du eta azkenik, laugarrenak aurreko ikerketen sinergiak bilatzen ditu, zenbat hezkuntza-gako identifikatzeko. Horrela lehen eta bigarren ikerketatan 14 hezkuntza adituk parte hartu dute, hirugarren ikerketan berriz, sexu-genero disidentziaren kolektiboak eta laugarren ikerketak ahots denak gurutzatu ziren. Kasu azterketek beraz, askotariko iritziak eztabaida-taldean eta elkarriketen bidez bildu ziren.

Emaitzek aditzera ematen dute behar-beharrezkoa dela egungo errealitate eta egoeran baitan proposamen integralak egitea; zeharkakoak, kokatuak eta komunitatearekin elkarlanean; eredu neoliberalari, neurgailu moralei eta (ber)binarizazioari adi, zein mugimendu feministak eta hezkuntza komunitatearen saretuz. Haur Hezkuntzako proposamen pedagogikoak balioan jarri behar dira eta helduok, sexualitatea, generoa zein identitatea ulertzeko ditugun eredu zurrunen bidez haurtzakoa mugatzea etetea beharrezkoa da.



Era berean, tranfemismoa emaria pedagogikoa oso indartsu bat da Haur Hezkuntzako ikasgeletara gerturatzeko. Haurtzaroaren kode eta kultura zein gorputzaren agentzia eta erdiguneko posizioa abiapuntu izanik ikerketa-ondorioez gain, Haur Hezkuntzak aplikatu daitezken zenbait gako transfeminsita jasotzen ditu ikerketa honek; paradigma intersektional, kritiko eta subertsibo batetik.



Accesit:

**Martxoaren 8a Euskal Herriko prentsan. Interpretaziomarkoak eta
edukien ezaugarriak**

Autora

Miren Itxaso Fernandez Astobiza

Director

Iñaki Zabaleta Urkiola



RESUMEN

Doktorego tesi honetan ikertu da Hego Euskal Herriko prentsak, 40 urteko epean (1978-2018), Martxoaren 8ari buruz, Emakumeen Nazioarteko Eguna, egindako estaldura periodistikoa eta Euskal Mugimendu Feministaren inguruan eraiki duen irudia. Hego Euskal Herriko prentsak azken 40 urtetan islatu duen Feminismoaren irudia aztertu da eta horretarako Martxoaren 8 ardatza izan da, borroka egun honen inguruan Mugimendu Feministaren mezuak agendan sarten direla uste baitugu.

Ikerketa hau egiteko, Hego Euskal Herriko hamaika egunkari, esparru ideologiko zein politiko desberdinetakoak, aztertu dira, Berria eta Egunkaria (Egunero), Navarra Hoy, Deia eta Diario de Noticias, El Correo Español eta Diario Vasco, Diario de Navarra, Egin eta Gara¹. Ikerketaren hasierako denbora lerroa 1978tik 2013ra zihoan, baina lana ia amaitutzat zegoenean 2018ko Martxoaren 8a eztanda bat izan zen gure gizartean eta mundu-mailakoan. Horregatik ezinbestekotzat jo genuen hura ere aztertzeraz.

Bestalde, bi mugarri nagusi daude hasiera data hori hautatzeko, alde batetik DEIA eta EGIN egunkarien sorrera, urte horretan jaio baitziren (1997ko ekaina eta iraila) Bi egunkari hauek, ideologia abertzalearen inguruan kokatzen dira (Idoiaga) trantsizio garaian jaio eta denboran mantendu ziren. Bestetik 1977. urteko abenduan Euskadiko Lehen Jardunaldi feministak antolatu ziren Leioako Unibertsitateko Campusean. Teresa Del Valle-ren arabera, Euskal Mugimendu Feministaren sortze-mugarria liriateke jardunaldiok, identitate feministaren legitimatzaile

Ikerketaren esparruak estaldura periodistikoa, 1978-2018 urtealdian egindakoa, eta Euskal Mugimendu Feministaren inguruan eraikitako enkuadre edo interpretazio-markoak izan dira. Framing eta eduki-azterketan oinarritzen da lan hau. Metodo kuantitaboez gain, aldaera kualitatiboa ere kontutan hartu da. Gure lehenengo helburua nola enkuadratu duten feminismoa EHko egunkariak aztertzea izan da, zeintzuk eta zenbat frame edo koadratze-eskemak erabili dituzten azken 40 urtetan feminismoaz berri emateko. Bigarren helburu bat egunkari horien artean desberdintasun nabariak dauden edo ez ikertzea izan da, baita urteen poderioz enkuadre horiek aldatu diren. Badago

¹ Euskadi Información at geratzen da hartutako epeak direla eta.



hirugarren helburu bat, framing edo koadratze-teoria hauen ikerketa sakona egin eta gure errealitatea aztertzeko tresna baten oinarriak sortzea Metodologiari dagokionez, eduki-analisia eta framing/enkuadre edo interpretazio-markoen teoria erabili dira, ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarrituz.

Ondorioak laburbilduz, esan dezakegu, Euskal Herrian, feminismoaren kontrako jarrerak ez direla izan AEBn edo Australiakoak bezain oldarkorrak. Horren ordez, feminismoa ikusezin bihurtu eta ezkutatu egin da: sinatu gabeko artikuluak nagusi izan dira, emakumeek landu dituzte gehien bat eta, tamaina txikikoak eta garrantzi gutxiko orrialdeetan.

M8ari dagokionez, egunkaririk kontserbadoreenek ez dituzte beren agendetan mugimendu feministaren errebindikazioak landu; emakumeen ohiko rolak iraunarazten dituzten ikuspegiak landu dituzte, gure gizartean nagusi den eta emakumeen diskriminazioan oinarri duen eredu patriarkala dudatan jarri gabe.

Aztertutako zenbait egunkaritan M8ari eta oro har Mugimendu Feministari egindako jarraipena txikia izan da, eta ez zaio merezi duen garrantzia eman, gaia erreperitorio publikoko gai "garrantzitsuetatik" kanporatuz. Ale gehien saltzen dituzten egunkari kontserbadoreenek ikuspegi atomizatu eta erredukzionistak eskaini dituzte, ez dute mugimendu feministaren benetako indarra islatu, eta, horregatik, 2018ko mobilizazioetara egindako deialdiak harritu egin du haren oihartzunagatik.